

Aldez aurreko kontsulta publikoa, kanpoan bizi diren nafarrekiko harremanak arautuko dituen Foru Legearen Aurreproiektu bati buruzkoa

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko eta Instituzionalari buruzko, martxoaren 11ko, 1/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publikoa egin behar da administrazio eskudunaren web atariaren bidez. Kontsulta horren bidez, etorkizuneko arauaren eraginpean egon daitezkeen subjektu eta erakunde adierazgarrienen iritzia jaso behar da, honako gai hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik

Dokumentu honen helburua da indarrean dagoen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta Foru-sektore Publiko Foru Legearen 133.1 artikulua planteatzen dituen gaiei erantzutea, eta kanpoan dauden nafarrekiko harremanei buruzko foru legearen aurreproiektua egin aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaile izan daitezkeen pertsonak, eta herritarrek oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

1.- Arauzko aurrekariak

Nafarroako Komunitateak ez du kanpoan dauden nafarrei buruzko araudi espezifikorik. Ez dago gai horri buruzko lege xedapenik, ez abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoan (LORAFNA delakoa), ez ondorengo foru legeetan ere.

LORAFNAn gai horretara hurbiltzen den aipamen bakarra 5. artikuluan egiten da, "nafartasun politikoa" aipatzen baita bertan. Artikulu horren 2. puntuan honako hau adierazten da: "Atzerrian bizi eta beren azken auzotasun administratiboa Nafarroan izan

duten espainiarrek Nafarroan bizi direnek dituzten eskubide politiko berberak izanen dituzte. Halaber, haien ondokoek ere eskubide horiek izanen dituzte, espainiar gisa izena emanda badaude eta horrela eskatzen badute Estatuko legeriak zehazten duen gisan”.

Espainiako Konstituzioa, ordea, zertxobait esplizituagoa da kanpoan dauden herritarrei dagokienez. Hala, 42. artikuluan hau adierazten du: “Estatuak bereziki zainduko ditu atzerrian ari diren langile espainiarren eskubide ekonomiko eta sozialak, eta haien itzuleraren alde zuzenduko du bere politika”.

Aipaturikoa Lege Nagusiaren 42. artikuluan oinarrituta, 2006ko abenduaren 14an onartu zen [40/2006 Legea, Atzerriko Espainiar Herritartasunaren Estatutuarena](#). Estatutu horrek Espainiako herritarrak berdintasun baldintzetan itzultzeari buruzko zenbait alderdi arautzen ditu, eta oztopoak kendu eta diskriminazioak ezabatu nahi ditu.

Aipaturikoez gain, beste lege testu batzuek ere arautzen dituzte atzerrian dauden Espainiako herritarren antolamenduekin zerikusia duten alderdiak, eta herritar horiek eskura dituzten prestazioak eta laguntzak. Arau horiek ere baliagarriak izan daitezke, eta jarraian zerrendatzen ditugu:

- [230/2008 Errege Dekretua, otsailaren 15koa](#), atzerrian dauden Espainiako Herritarren Kontseilu Nagusia arautzen duena.
- [1960/2009 Errege Dekretua, abenduaren 18koa](#), atzerrian bizi diren espainiarren kontseiluak arautzen dituena.
- [3/2005 Legea, martxoaren 18koa](#), Gerra Zibilaren ondorioz adingabe zirela atzerrira joan behar izan zuten eta bizitzaren zatirik handiena lurralde nazionaletik kanpo egin zuten espainiar jatorriko herritarrei prestazio ekonomikoa aitortzen diena.
- [8/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa](#), atzerrian bizi diren eta itzultitako espainiarren aldeko premiagatiko prestazioa arautzen duena.

- [1493/2007 Errege Dekretua, azaroaren 12koa](#), behar bereziko egoeran itzultitako espainiarrei zuzenean emandako laguntzen arau erregulatzailerak onesten dituenak.

Bestalde, autonomia erkidego gehienek jada arautu dute gaia lege mailako arauen baten bidez, eta, horrez gain, etorkin horiek sorterrira itzultzeak duen garrantzia jabetuta, itzulera planak diseinatu eta ezarri dituzte, herritar horiek lurraldeko gainerako biztanleen baldintza beretan jartzeko.

Nafarroan, foru lege espezifikorik ez dagoen arren, [Kanpoan Bizi Diren Nafarrentzako NEXT Estrategia](#) onartu zuen Gobernuak 2019ko martxoaren 27ko Erabakiaren bidez. Estrategia horrek oinarritzko helburu hauek ditu: kanpoan dauden nafarrekiko komunikazioa eta harremana modu koordinatuan eta eraginkorrean egitea; kudeaketa publikoko mekanismoak eta tresnak antolatzea, kanpoan bizi diren herritarrek Nafarroaren proiektuan aktiboki parte hartu dezaten; Nafarroako talentuak kanpora ihes egin dezan saihestea eta itzulera erraztea; eta sareko lana sustatzea.

Estrategia horren 2. ardatza garatzeko asmoz, 2022ko abuztuan [NEXT-RetorNA](#) ekimena aurkeztu zuen Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak. Ekimen horren bidez, kanpoan dauden nafarrak beren borondatez itzultzea bultzatzeko agertokiak sortu nahi dira, eta, horretarako, zenbait neurri ezarri, arreta hobetzeko, izapideak errazteko, talentu emigratuari itzultzen laguntzeko, administrazioari tresnak emateko eta herritar horiek zerbitzu publikoetara baldintza beretan iritsi ahal izateko.

2.- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak

Kanpoan dauden Nafarroako herritarrekin zerikusia duten gaur egungo arazoei dagokienez, konpondu nahi diren arazo nagusiak hauek dira:

- Foru legeria espezifikoak arlo horretan duen hutsunea bete.
- Itzuleraren kudeaketari eta desberdintasun egoerei buruzko oztopoak gaitu, besteak beste eskolaratzeari edo etxebizitza lortzeari dagokienez.

- Nafarroako administrazio publikoek kanpoan dauden nafar kolektiboekin dituzten harremanak arautu.
- Administrazioen betebeharren zehaztapen eskasa.
- Nafarroako Komunitateen Kontseilurik ez egotea.

3.- Araua onesteko beharra eta egokitasuna

Proposatzen den esparru juridikoak foru legearen maila izan behar du nahitaez, helburuak eraginkortasunez betetzeko behar diren betebeharrak eta eskubide guztiak ezarri ahal izateko.

Aurreko puntuan aipatu denez, LORAFNAn eta ondorengo foru legerian ez dago gai honi buruzko lege xedapenik, eta, horrenbestez, foru lege baten beharra are nabarmenagoa da.

Gainera, Konstituzioan ezarritako betebeharrak bat dute botere publikoek: gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen berdintasuna eragingarria izateko baldintzak sustatzea, eta, horretarako, berdintasun hori eragozten edo zailtzen duten oztopoak kentzea eta herritar guztien parte hartzea erraztea, bizitza publikoan eta ekonomia, kultura eta gizarte bizitzan.

Bestalde, lege esparru egokirik ez dagoenez, ezin izan da garatu beste autonomia erkidego batzuetan jada badagoen figura bat, kanpoan dauden kolektiboek parte hartzeko aukera ematen diona. Figura hori Nafarroako Komunitateen Kontseilua litzateke: kolektibo horri zuzendutako organo aholku emailea eta herritarren partaidetzarako organoa.

4.- Arauaren helburuak

Aurreko ataletan azaldutako arazoen eta beharren arabera, arau berriaren helburu orokorren artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Kanpoan dauden nafarrekiko harreman instituzionalak sendotu daitezen sustatzea, eta oinarrizko jarduketa ildoak zehaztuko dituen euskarri juridikoa ezartzea, kolektibo hori osatzen dutenei laguntzeko eta arreta eta babesa emateko.
- Foru Komunitatetik kanpo bizi diren nafarren lotura afektiboak zaintzea eta indartzea, eta Nafarroako bizitza sozial, kultural, ekonomiko eta politikoan parte hartu dezaten ahalbidetzea.
- Kanpoan dauden nafarren eskubideak zehaztea.
- Foru Komunitatera itzultzea errazteko politika integrala sustatzeko oinarriak ezartzea.
- Itzulera prozesuan dauden edo dagoeneko itzulita dauden herritarren eta Nafarroan bizi diren herritarren arteko desberdintasunak saihestea, zerbitzu publikoak eskuratzeari dagokionez.
- Itzulitako nafar herritarren figura arautzea.
- Kanpoan dauden nafar komunitateak eta horien balizko federazioak arautzea.
- Nafarroako Komunitateen Kontseilua sortzea.
- Estatuarekiko, beste herrialde batzuekiko eta autonomia erkidegoekiko lankidetzak definitzea, lortu nahi diren helburuak betetzeko.
- Nafarroako komunitatetzat hartzea Espainiako beste eskualde batzuetan eta beste herrialde batzuetan dauden Nafarroako etxeak, zentroak edo elkarteak.

5.- Izan litezkeen bestelako aukerak

Kontuan hartuta neurriaren izaera eta irismena, ezinbestekoa da araua foru legearen mailakoa izatea.